



## Enplegua erritmo onean handitu zen 2024ko hirugarren hiruhilekoan


Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA), 2024ko hirugarren hiruhilekoan biztanleria landuna %2,0 hazi zen aurreko urteko aldi beraren aldean. Tasa horren ondorioz, 19.300 landun gehiago daude orain 2023an baino. Beraz, aurtengo lehen erdian lan merkatuak erakutsi zuen hedapen tonuari eutsi zaio.

Sexuaren araberako aldakuntza tasek bilakaera hobea adierazten dute gizonen kasuan. Izan ere, enplegu berrietatik 12.800 gizonek okupatu dituzte gainontzeko 6.500 lanpostuak emakumeek bete duten bitartean. Gizonen aldakuntza tasa (%2,5) azken bi urteetako handiena izan da, eta emakumeena (%1,4) urte eta erdiko txikiena.

### LANDUNAK. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

### 3. HIRUHILEKOKO LANDUNAK %2,0





### LANDUNAK. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa

### LANDUNAK. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




Enplegu berriak ekoizpen sektoreen arabera banatzen direnean, garbi geratzen da lanpostu horietako gehienak zerbitzu jardueretan kontzentratu direla, duela urtebete baino 14.300 pertsona gehiago baitaude lanean beraietan. Horietatik, 6.900 emakumeak izan ziren. Izan ere, enplegua aurkitu zuten ia emakume guztiek zerbitzuen sektorean egin zuten lan. Halaber, industria 5.800 enplegu

sortzeko gai izan zen azken hamabi hilabeteetan, eta gehienak gizonek bete zituzten (5.100). Bestalde, eraikuntzak lanpostu batzuk galdu zituen eta bilakaera horrek emakumeei bakarrik eragin zien. Enplegu sorrera garbi horren ondorioz, guztizko enplegu tasa puntu erdi igo da, %52,5eraino, eta sexuaren araberako ehunekoak %57,3 dira gizonentzat eta %48,0, berriz, emakumeentzat.

## LANGABEZIA TASA. GUZTIRA

Ehunekoa




Langabezia tasak beharrezko joerarekin jarraitu zuen, eta hirugarren hiruhilekoan % 7,1eko ehunekoa jaso zuen, duela urtebete erregistratutako tasa baino sei hamarren gutxiago eta 2008tik izandako baliorik txikiena. Sexuaren arabera, emakumeen langabezia tasa hiru hamarren jaitsi zen, %7,6ra, eta gizonena, berriz, zazpi hamarren, %6,8ra.

Beste aldetik, nabarmendu behar da alde handia dagoela Espainiako nazionalitatea duten pertsonen langabezia tasaren (%5,8) eta atzerriko nazionalitatea dutenen (%18,0) artean, nahiz eta azken hori ia hiru puntu jaitsi den.


## LANGABEZIA TASA. EMAKUMEAK

Ehunekoa



## LANGABEZIA TASA. GIZONAK

Ehunekoa



Iturria: Eustat.